



Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 9koa. Horren bidez, Bergarako Udalari gomendatzen zaio ofizioz ezeztatu dezala 2007. urtean zehar Zabaleta Mendi auzoko bizilagunei zaborren tasa gisa kobratutako zergen likidazioa. Izan ere, urte horretan zehar, ez zen zabor-bilketa zerbitzurik egon beren etxebizitzetan.

Aurrekariak

1. Zabaleta Mendi auzoko bizilagunek, Ararteko erakundearen aurrean, Bergarako Udalaren jarduera zalantzan jarri dute. Izan ere, 2007ko hasieran, toki erakunde hori auzotarrei zabor tasa kobratzen hasi zen, nahiz eta beren etxebizitzatan zabor-bilketa zerbitzurik eskaini ez.

Kaltetutako pertsonak kexa egin zuten eremu horretan 35 bat bizilagun bizi zirela eta ez zutela zaborrontzirik, ezta zabor-bilketa punturik ere. Izan ere, esaten zutenaren arabera, etxetik gertuen zeuden zaborrontziak honakoak ziren: bata, Asension, auzotik 3 bat kilometrora eta bestea, Kanpazar gainean, udalerritik kanpo, Bizkaiko Lurralde Historikoan, auzotik 4 bat kilometrora.

2. Zabor-bilketa zerbitzua arautzen zuen zerga ordenantzak, aurreikuspen bat erantsi zuen eta honela zioen:

"h) Landa auzoetako zaborbilketa zerbitzuari dagokionez, kobraketarako irispideak ahauek dira:

- Zaborbilketa puntu batetik 150 m edo gutxiagora dagoen etxebizitza edo jarduerari tasaren %100 kobratzea.

- Zaborbilketa puntu batetik 150 m baino gehiagora dagoen etxebizitza edo jarduerari tasaren %40 kobratzea."

3. Erakunde honek, informazio eskaeran, Bergarako Udalari adierazi zion etxebizitzaren eta zabor-bilketako puntuen arteko distantziaren luzera zela eta, ez zela bidezkoa biztanleei tasa hori kobratzea; zabor-bilketa zerbitzua ez zutelako behar bezala eskaintzen.





Era berean, aditzera eman genuen, Bergarako Udalak defendatzen zuen zaborra biltzeko eta ezabatzeko zerbitzuaren kudeaketa orokorra, auzotarrei eskaintzen zitzaien zerbitzua zela, eta, nolabait, zuzeneko eta berehalako onura zuela haientzat, zabor tasaren subjektu pasibo bihurtzen zituelako. Hau da, gure ustez, 2007 urtean zehar bizilagun horiei ez zitzaien zabor-bilketa eta ezabapen zerbitzua modu egokian eskaini; udal lurraldeko beste eremuetan zerbitzuak erabilgarri egoteak ez baitziren onura berezirik ekarri.

Horri dagokionez, Bergarako Udaleko zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen 2007ko ordenantzaren aipatu zen: "egitate zergapegarria da Toki Administrazioak **zerbitzua modu eraginkorrean eskaintzea** edo jarduera egitea..." eta horrenbestez, ez zerbitzuaren kudeaketa hutsa. Era berean, udal ordenantza horrek ezartzen zuen "zerbitzua edo jarduera bukatutakoan tasa sortzea". Hau da, ez zen nahikoa zerbitzua, oro har, ondasun higiezinaren bizilagunentzat eskuragarri egotea, zerbitzu hori udalerrian sortu baitzen. Herritarrei jada ordainketa erreklamatzeko zitzaien, baina ezinbestekoa zen, tasa ordainarazi ahal izateko, zerbitzu hori herritarrei eskaintzea.

4. Bergarako Udalak tasa kobratzea defendatu zuen eta adierazi zuen 2008ko zerga Ordenantzaren edukia zehazterakoan, Deba Garaiko mankomunitatearen markoan arazoa aztertuko zuela. Horren ondorioz, udalak eskaintzen zituen zerbitzu publikoen eta jardueren 2008. urteko ordenantza arautzailearen testua aldatu zen.

Zabor-bilketa eta ezabapenaren ordenantzaren idazkuntza berriak, honela dio:

Kategoria	Tarifa	Langile kopurua	Ekibalentziak	Tasa 2008 (€/hiruhilero)
1. Etxebizitzak	1.0	-	0,40	7,60 €
	1.1	-	1,00	19,00 €

"Tasa hauek aplikatzeko ondorengo irizpideak izango dira kontuan:

Etxebizitzak (1 kategoria). Bi tarifetan banatzen dira:

1.0. Lurzoru ez urbanizagarrian kokatutako etxebizitzak (landa auzoak), hiri hondakin bilketa puntua 150 m baino urrunago eta 500 m baino gertuago daukatenak. Tarifa honetan sartzen dira ere artikulua honetako 3.a. puntuan deskribaturiko kasuak.

1.1. Beste etxebizitzak. Tarifa honetan sartzen dira lurzoru urbano edo urbanizagarrietan kokatutako etxebizitzak (artikulu honetako 3.a. puntuan azaltzen den salbuespenarekin), eta baita lurzoru ez urbanizagarrian kokaturikoak, baina bilketa puntua 150 metro edo gertuago daukatenak, bilketa puntu hori erabiltzailearen auzoan kokaturik dagoen ala ez kontuan izan gabe.

Besteak (2, 3, 4 eta 5 kategorietakoak):

Lurzoru ez urbanizagarrian kokaturikoak (landa auzoetan). Bilketa puntua 150 m edo gertuago badaukate, dagokien tarifa osoa ordainduko dute. Bilketa puntua 150 m eta 500 m artean badaukate, dagokien tarifaren %40a ordainduko dute. Bilketa puntua 500 m baino urrunago badaukate, ez dute tasarik ordaindu behar.

Lurzoru urbano edo urbanizagarrian kokaturiko zergadunak dagokien tarifa osoa ordainduko dute, artikulu honetako 3.b. puntuan azaltzen den salbuespenarekin.

Lurzoru urbano edo urbanizagarrian kokaturiko zergadunak bilketa puntua 150 metro edo gertuago eduki behar dute. Kasuren baten hau ez bada betetzen, eta Mankomunitateak kasua aztertu ondoren, bilketa puntua 150 metro edo gertuagora jartzea ezinezkoa dela ebazten badu:

Etxebizitzak: 1.0. tarifa ordainduko du.

Besteak: dagokion tarifaren %40a ordainduko du....”

5. Nahiz eta neurri hau, tasa ordainarazi ahal izateko eskatzen den zerbitzu eraginkor batekin gehiago bat etorri, ez da nahikoa 2007an auzo horretako bizilagunengan eragina izan zuen arazoa konpontzeko.

Horregatik, Arartekoak Bergarako Udalaren parte hartzea berriz eskatu zuen eta, era berean, familia horiei 2007an kobratutako zabor tasen zenbatekoa ofizioz itzultzeko eskaria egin zuen.

6. Bergarako Udalaren azken erantzuna, Segurtasun Juridikoko Printzipioa aplikatuz, ordaindutako tasak itzultzeari uko egingo diola izan da. Horrez gain, esan du irizpidea aldatu izanak ez duela 2007an indarrean zegoen ordenantzaren idazkuntza eragiten.

Kontu horren inguruan, toki erakunde horrek azpimarratu du 2006ko urriaren 30ean, Bergarako Udalbatzak behin-behineko izaerarekin onartu zituela 2007an indarrean zeuden zerga ordenantzako aldaketak. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean



argitaratu zen akordioa, interesdunek espedientea aztertzeko aukera izan zezaten eta egoki ikusten zituzten erreklamazioak egin zituzten. Une hartan, ez zen ordenantzako testuaren aurkako erreklamaziorik aurkeztu, eta hortaz, behin betiko izaerarekin onartu zen, akordio berrien beharrik gabe.

Hau da, udalak azaltzen duen moduan, behin ordenantza onartu zenean, toki erakunde horrek indarrean zegoen testua aplikatu zuen.

Erreklamazio hau ikusita, kexan eta Udalak bidalitako informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu zuri honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Bergarako Udaleko zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen 2007ko ordenantzan honakoa aipatu zen: ***“egitate zergapegarria da Toki Administrazioak zerbitzua modu eraginkorrean eskaintzea edo jarduera egitea...”*** (3.artikulua) Era berean, udal ordenantza horrek ezartzen zuen ***“zerbitzua edo jarduera bukatutakoan tasa sortzea”***. 10). Hau da, 2007ko ordenantzaren testuak berak onartzen zuen, ez zela nahikoa zerbitzu hori udalerrian, orokorrean, ondasun higiezinak dituzten titularren esku egotea, baizik eta modu eraginkorrean bizilagunei zerbitzua eskaini behar zitzaiela.
2. Zerbitzua modu eraginkorrean eskaini behar dela eta, egoki deritzogu harira ekartzea Auzitegi Gorenaren erabakia (1997ko ekainaren 7ko epaia, gomendio zenbakia 12.362/1991), Errioxako Auzitegi Nagusien erabakia (1997ko uztailaren 30eko epaia, 396 zbk, gomendio zbk. 292/1996) eta Gaztela-Mantxakoa (1997ko irailaren 25a, 408 zbk, gomendio zbk. 560/1995). Erabaki horien bidez, udalerriak zerbitzu hau modu eraginkorrean eskaintzen ez duenean, tasa kobratzea ezegokitzat jo zen.

Beraz, Auzitegi Gorenak aurretik aipaturiko epaian honakoa adierazi zuen:

“...Es obligado, a este respecto, recordar que el hecho imponible de la tasa viene constituido por la prestación de un servicio o la realización de una actividad que beneficia o afecta de modo particular al sujeto pasivo. Lo dice taxativamente el artículo 26.1, a) de la Ley General Tributaria de 1963 (RCL 1963, 2490 y NDL 15243), según el cual «las tasas son

tributos cuyo hecho imponible consiste en la prestación de servicios o la realización de actividades en régimen de Derecho público que se refieran, afecten, o beneficien a los sujetos pasivos, cuando concurran las dos circunstancias siguientes: a) Que sean solicitud o recepción obligatoria para los administrados; b) Que no puedan prestarse o realizarse por el sector privado por cuanto impliquen intervención en la actuación de los particulares o cualquier otra manifestación del ejercicio de autoridad o porque, en relación a dichos servicios, esté establecida su reserva a favor del sector público conforme a la normativa vigente.

Por tanto, ni siquiera la mera existencia de un servicio municipal es suficiente para constituir a una persona en sujeto pasivo de la tasa establecida para su financiación, si el servicio no se presta de modo que aquélla pueda considerarse especialmente afectada por aquél, en forma de beneficio efectivo o provocación por el interesado de la actividad municipal, pues sólo con esas características puede ser un servicio municipal legitimador de la exigencia de la tasa.”

3. Era berean, egoki deritzogu aurretik agertutako erabaki judicial bat aipatzea, 1997ko irailaren 27ko Gaztela-Mantxako Auzitegi Nagusiaren epaia. Epaiak kexa-espedita honetan aztertzen den antzeko kasu bat agertzen du. Auzitegi horrek, bere erabakian, ezegokitzat jo zuen tasa kobratzea, frogatu baitzen ez zegoela zaborrontzirik errekurtsogilearen etxetik 300 metro baino gutxiagoko distantziara. Kasu hauetan, jurisprudentziak onartu duenaren arabera, ez da udal zerbitzua eskaintzen, tasa ordainketa eskatzea gaitzen duen egitate zergapegarririk ez dagoelako; hau da, ez zaiolako subjektu pasiboari kalte edo onurak eragingo dizkion zerbitzua eskaintzen edo jarduera egiten.

Zehazki, agindu horrek honela dio: *“en el domicilio de la entidad recurrente no existe ni ha existido nunca contenedor de basuras, encontrándose el más próximo a 300 metros de distancia, y que por tanto no se le ha realizado el servicio de recogida de basuras, procede declarar vulnerados los artículos 20 y 26 de la Ley de Haciendas Locales ya que para poderse exaccionar una tasa determinada es necesario que el municipio preste el servicio y que éste beneficie especialmente al administrado o le afecte de modo particular, por lo que no se puede exaccionar una tasa por un servicio que no se presta”.*



4. Honen inguruan, egoki deritzogu azpimarratzea, esku artean dugun kasu honetan, udal etxebizitza hauentzako zaborrontzirik gertuenak ez daudela auzotik 300 metrora, 3.000 metrora baizik. Beraz, ezin da inola ere esan, 2007 urtean auzoan bizi ziren bizilagunei zabor-bilketaren udal zerbitzuak modu eraginkorrean eman zirenik. Bestela esanda, 2007ko ekitaldian, bizilagun horiei dagokienez, ez zen tasaren egitate zergapegarririk izan, eta beraz, ez zen ordainarazi. Beraz, tokiko erakundeak bizilagun horiei kontzeptu horregatik ordaindutako kopurua itzuli beharko lieke.

5. Bergarako Udalak, bere defentsan, argudiatu du bizilagunek ez zutela Udaltzako onartutako ordenantzaren behin-behineko testua ezbaian jarri publikoaren eskura egon zen aldian. Tokiko erakunde horrek dakien moduan, fase horretan bizilagunak agertzea ez da erabakigarria beren eskubideak defendatu ahal izateko.

Honen harira, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 86.3. artikuluan honakoa xedatzen da:

“Interesdunek, izapide honetan agertu ez arren, beraiei dagozkien errekursoak aurkez ditzakete prozeduraren behin betiko ebazpenaren aurka.

Jendaurreko erakustaldiaren izapidean agertzen direnak ez dira, berez eta besterik gabe, interesduntzat joko. Nolanahi ere, izapide honetan alegazioak edo oharak aurkezten dituztenek administrazioaren erantzun arrazoitua jasotzeko eskubidea dute. Horrelakoetan, erantzun bakarra eman dakieke funtsean arazo bera agertzen duten alegazio guztiei.”

Badakigu hainbat bizilagunek toki erakunde honen aurrean erreklamazioa egin zutela, beren etxebizitzetan ordainagiriak jaso zituztenean tasa kobratuko zirela ziur jakin zutelako.

Erreklamazio horiek gaitzetsi egin ziren, 2007ko martxoaren 27ko Alkate Dekretuaren bitartez. Dekretu horrek honakoa dio:

“-Aurkeztutako errekursoak ez onartzea. Halere, aitortzea Udalaren akatsa izan dela errezibo berriak atera aurretik informazio osoa ez ematea interesatu guztiei.



- *Errekurtsoa aurkeztu dutenei tasa borondatez ordaintzeko epea 2007ko apirilaren 30era arte luzatzea...*

Hau da, toki erakunde horrek berariaz onartu zuen ez ziela informazio guztia eman interesdunei ordainagiriak bidali aurretik, eta hori dela, borondatez ordainketa epea 2007ko apirilaren 30era arte luzatu zuen.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:

22/2008 GOMENDIOA, irailaren 9koa, Bergarako Udalari egina

Ofizioz ezezta dezala 2007. urtean zehar Zabaleta Mendi auzoko bizilagunei zaborren tasa gisa kobratutako zergen likidazioa. Izan ere, urte horretan zehar, ez zen zabor-bilketa zerbitzurik egon beren etxebizitzetan.

